

HUTSAREN GAINEAN HUTS: ELIAS, ELIZA

IZEN JATORRA



ELIZGARAI? 1965

Toki-izen jatorrei buruz **Hondarribia**-ren 8. alean agertu genuenaren arabera, bada oraindik, gaur egun ahoz erabiltzen dena, beste gabe onartzen duenik, gure arbasoegandiko ondare diren toki-izenen kaltetan.

Guk ordea, esan nahia hutsaltzen duena onartzerik nahi ez. Mendez-mende zuzen erabilia, noizbait gaizki ahozkatzez aldatu dena, ez dugu uste onar daitekenik, bestela historia ukatzen ari gara, deiturak bijurrikatzen, eta hizkuntza bera hausten, zatitzen eta pikortzen.

Arazoa ez da beti uste bezain ximplea. Inoiz ahozkeraz datorkigun eboluzioa neurri batean onartu beharrezkoa zaigu, baina ez deformaturik hutsal bihurtuko den neurrian. Bestela, akabo gure hizkuntza.

Zuzen jokatzeko, aburuak jarri eta arauak mugatu behar ditugu, eta azken erabakiak hartzeko, ahozkerazkoa efa agiri zaharretakoa begiratzuz eta haintzat hartuz, ahal den neurrian finkapen ziu-rak egin.

Aipatu dugun **Hondarribia** 8. zenbaki horren 9. orrialdean gaztelera "Montaña"-tzat erabiltzen den auzoaren izen jatorra Kornus (edo Kornuz) zela esan genuen, eta ez alardean agertu zen "Mendi". Agiririk zaharrenetan **Cornoz**

eta XVII. mendetik **Cornuz** zein **Cornus** bezala maizago erabilia. Bestalde, **Cornoz** deitura oso ezaguna zen XV eta XVII. mendeetan.

Izen hori daraman baserriaren ondoan badira beste bi, gaur egun bata gutziz eroria eta bestea erortzen. Ba, horiek, ahoz, **Pekunia** eta **Muxenia** bezala eza-gutzen dira; baina **Floridablanca**-ren aginduz 1787. urtean lehen aldiz egin zen zenso hartan **Peruconea** eta **Murise-**

nea bezala agertzen dira. Eta **Diputazioak** 1857an argitaratu zuen **Nomenclátor** hartan **Peruquenea** eta **Musenea**. Ahoz iritsi zaizkigunak ordea ez dute ezeren antzik, ez zentzurik, ez da ere euskarazkoak direnaren itxurarik ere.

Uste dut adibiderik aski dela, nola bil-du behar ez diren jakiteko.

Oso jakina denez, eta beti kontutan hartu beharrezkoa, **Hondarribia** aldean, etxeari, pertsona-biztanlearen izenari **-nea** (beste lekutan **-rena**) atzikia erasten zaio izendapenez, gerora batzutan **-nia** bihurtua. Asmorik hobereenarekin ere, kalterik egin nahi ez badugu, hori ere kontutan hartu beharrezkoa zaigu.



ELIZBERRI? 1965.

LAPITZ JANARIDENDA

Erosketa hobekak

S. Pedro kalean Tel. 641360
HONDARRIBIA

SALMENTAK

— Haltzariak saltzen dira, sukalde-koak ere bai. Tel. 642071.

HIZKUNTZAK

- Ingelesa eta frantsesa irakasten diet OHO, BBB eta UBiko ikas-leei. Tel. 643507.
- Ingelesa. Santiago kalea, 41, 3.ª.
- Frantsesa naiz, eta frantsesez irakasten dut. Tel. 642202.
- Ingelesa. BBB eta O mailak. Santiago kalea, 3B-1.ª. Tel. 642284.

AXULAR LIBURUDENDA

*Didaktika jokoak
Euskal liburu eta diskak*

Matxin de Arzu kalean - HONDARRIBIA

Aspaldiko urteetan gauza hauek axolarik gabe erabili dira, eta baserri izenak zerrendetan biltzean arinegi jokatu da, hizkuntzaren kaltetan eta deiturak beren era jatorretik etenez.

Auzo, baserri eta toki-izenak behar bezala erabiltzeko kontzientzia hartu beharra dugu, historiaren eta arkeologiaren azterketarako nahiz hizkuntzaren onerako lagungarri direnez gero. Egin diren okerrak eta hutsak hain dira handiak, gezurra badirudi ere, Jaizkibel mendian lehengizonen azternategiak aurkitzeak lan gutiago eman zidan bertako izenak jasotzek baino.

Izenon garrantzia nolakoa den jakiteko, adibide gisa, hona hemen neroni gertatua:

Mendizalea eta arkeologi zalea izaki, eta Hondarribira etorri nintzenean, Udalak 1969an egin zuen 1:10.000 eskaladun mapa batez jabetu nintzen, toki-izenen arabera neure arloan ikuskatzeko. Eta, hara, Jaizubia auzoan **Eliz-garay**, **Eliz-azpi** eta **Eliz-berri**, erromes tokiaren susmoa hartu eta bertara jo nuen ermita arrastorik ote zen. Baina, huts!

Diputazioak 1857an etxe zerrendaz argitaratu zuen **Nomenclátor** hura hartu nuenean, handik ohartu nintzen **Eliz** horiek **Elias** zirela: **Elias-garaikoa**, **Elias-azpi** eta **Elias-berri**, eta izkribu zaharre-

tan ere hala ziren, gero ikusi dudanez. Gehiago da, bertako biztanle zaharrek oroitzen ziren izen jatorra **Elias** zela eta ez **Eliz**.

Zer gertatu da hor? Azken bokala edo fonema **a** erortzea eta **s** eta **z** nahastea, inguru hauetan maiz gertatzen den bezala.

Kontu honetan, iturri jatorretara ez joateagatik halako lanak irten dira. Adibidez, har dezagun Iñaki Linazasororen **Caseros de Guipúzcoa** (1974) eta holako hutsez beterik aurkituko dugu. Hondarribiko zerrendan, ikutu batzuk gora-behera, hor oinarritu zen Etxaburu'tar Jose

Mari "Kamiñazpi" nere adiskide mina **Ondarrabiako kondaira** (1986) deritzan liburuaren 152-159. orrialdeetan dakarren zerrenda osatzeko, eta horregatik erori da hainbeste hutsetan.

Baina kultur ondarea zaintzeko, baikoitzari berea eman behar zaio, izkribu edo idazki zaharretan datorrenaren alde, eta ez azken belaunaldiaren erabilera bihurriari jaramon eginaz. Beraz, **Elias-garaikoa**, **Elias-azpikoa** eta **Elias-berri** erabiltzea hobeto egingo genuke.

Juan San Martin



ELIZASPI? 1965

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 1986 - XI - 30

Hondarribiko emaitzak

Taldeak	Udalan	Biterin	Kofradian	Amute-Mendelun	Guztira
Eusko Alkartasuna	364	766	596	479	2.205
Herri Batasuna	200	513	297	340	1.350
Partido Nacionalista Vasco	176	344	320	208	1.048
Euskadiko Ezkerra	173	328	154	233	888
P.S.O.E.	193	210	87	343	833
Coalición Popular	23	71	34	43	171
C.D.S.	27	40	31	47	145
P.C.E.	3	1	3	5	12
P.S.T.	1	1	1	3	6
Izquierda Unida	2	—	—	3	5
Partido Humanista	—	4	—	1	5
U.P.R.	—	—	2	—	2
P.O.S.I.	1	1	—	—	2
Abstentzioa	28,4%	26,8%	27,7%	32,8%	28,7%

Azaroko eguraldiaren datuak

Aireportutik jasoak

Bataz besteko tenperatura	11,6
Maximen bataz bestekoa	16,2
Minimen bataz bestekoa	6,9
Temperatura guztiz gorena	21,8
Temperatura guztiz behearena	0,4
Euri litroak	160,1
Egun euritsuak	12
Ordu eguzkitsuen kopurua	134,1

Aldizkari osoa

Kaixo: Nik 10 urte ditut. HONDARRIBIA aldizkaria polita da, baina osoa dela iruditzen zait. Alaiagoa izango litzateke, txistek edo "solasjaipausak" balitu. Bi-hotzez eskertuko nizueke, jarriko bazenituzkete.

Eneko G.

HAURTZAINDEGIAK

— Euskaraz eta erdaraz dakigun Institutoko 3n. mailako neska gara, eta larunbat goizetan (9,30-13,30) eta gauetan (21-24) haurrak zainduko genituzke.

Tel. 644022, 643197, 643983 eta 642310, hiruretatik lauretara.

LANAK

— Makinaz bordatzen dut.

Harma Plaza, 12. Tel. 644299.

ALOKAIRUAK

— Haltzaritutako etxebizitza alokatzen dut. Tel. 613400.

— Moketa garbigailuak alokatzen ditut. Tel. 615541.